

**ESKOLA 2.0 EGITASMOA****1,3 miloi itundutako ikastetxe pribatuentzat ordenagailuak erosteko**

Atzo, Eusko Jaurlaritzak, Gobernu Kontseiluak hartutako erabakiaren bidez EAEko itundutako ikastetxe pribatuak eskola 2.0 egitasmoan sartzeko dirulaguntza onartu zuen. Horretarako 1,3 milioiko dirulaguntza emango die ikastetxeei. Isabel Celaá, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuak proposatu zuen aginduak ikastetxe pribatuentzat 2.0 Egitasmoa bultzatuko dute Lehen Hezkuntzako 3. zikloa bati zango da.

Horrela, *Eskola 2.0* ikastetxeetara heltzen ari da, Ikastetxe pribatuetako langileriaren bizkarrera. **Irakasleriaren Motxilan zama astunagoa**, inposatu den programa honen eskutik.

Ikastetxe pribatuetako langileek publikokoekin berdintzeko errekurtsioak eskatzen ditugunean (irakastorduen murrizketa, laguntza irakasleak, hezkuntza laguntzaileak, orduak lan zehatzetarako...) **entzuten dugu behin eta berriro dirurik ez dagoela**. Eta hara non, Zapatero eta Celaáren graziaz (eta guztion diruaz), eskatu ez diren 1,3 miloi ordenagailuak erosteko ikastetxeetara helduko dira, gobernuaren propagandarako oso ongi datozenak.

Dudarik gabe, lizitazioa irabazten duen enpresarentzat onuragarria izango da (horixe salmenta!). Baina irakasleontzat? Ordenagailu bidez 5. mailako helburu didaktikoei heltzeko, **egin al da aurretiko egokitzapena eta lan pedagogikoa?** Ba, **ez**, irakasle bakoitzak egin beharko du. Zergatik 5. mailan eta ez 6.ean edo DBHko 2.ean? Auskalo. Gauzak horrela erabakitzen dira, goitik behera, kontsultarik ere egin gabe.

Egitasmo honetan **txapuza eta zabarkeria** ere aurkitzen dugu: dirudienez proiektua WiFin dago, ez dute kontutan hartu ez ikasle eta irakasleen osasunari kaltea egin diezaiokeen edota ikastetxe asko kableatuak dauden; software librearen adierazpen publikoen artean, Microsoft lizentzia eskatzen da lizitazio baldintzetan; **irakasleen prestakuntza ere inprobisatzen ari da eta horren antolaketaz kexak nagusi dira**; eta istorio hau oraindik hasi baino ez da egin ...

Argi dago ikastetxeak baliabide informatikoz jantzi behar direla, baina ez honela. Hasteko, Hezkuntza Sailaren jarreran aldaketa beharrezkoa da: Administrazioak **entzun eta aintzat hartu beharko lituzke ikastetxe pribatuen langileen eskariak** gai honetan eta bestetan ere, askotan eskatu dugun moduan.

ARABA: Eulogio Serdan, 5**BIZKAIA:** Nikolas Alkorta, 3 (Zabalburu)**GIPUZKOA:** Baso-txiki, 30-34 (atzealdea)**NAFARROA:** Descalzos, 72 (lonja)

01012 Gasteiz

48003 Bilbao

20015 Donostia

31001 Iruñea

☎ 945 14 11 04

☎ 944 10 02 98

☎ 943 46 60 00

☎ 948 21 23 55

☎ 945 14 43 02

☎ 944 10 13 60

☎ 943 45 36 27

☎ 948 22 97 90

araba@stee-eilas.orgbizkaia@stee-eilas.orggipuzkoa@stee-eilas.orgnafarroa@stee-eilas.org